

Hautsitakoa puskaka erakusteaz

DER TRAUMHAFTE WEG

Zuzendaria: Angela Schanelec.

Iraupena: 87 minutu.

Lekua: Tabakalera, Donostia.

Hurrengo emanaldia: ekainaren 9a.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligoria



Tabakalera programatzen dituzten pelikulei beti jarri behar zaie arreta, areto komertzialetan nekez ikusi ahal izaten ditugun lanak eskaintzeaz gain, arriskatzeko joera izaten baitute, aukera emanaz lengoia zinematografiko ezohikoak pantaila handian ikusteko. Joan den larunbatekoa ez zen salbuespena izan: Angela Schanelec zuzendari alemaniarren *Der traumhafte Weg* (Bide onirikoa) proiektatu zuten, egilearen azken lana, zeinean bi bikoteren hausturak kontatzen diren elkarren arteko 30 urteko tartearekin eta, itxuraz behintzat, bien arteko loturarik gabe.

Zentzumenak esna edukitzea eskatzen duen filma da, agerikoa baita plano bakoitza modu oso neurtuan hartuta dagoela, perfekzionismoz; eta zuzendariak asmoa eduki duela irudietatik haragoko zerbait ebokatzeko. Alde horretatik, Schanelec-en hautuak gogora ekarri dit maiz Anton Txekhov idazleari egotzen zaion esaldi, izatez, apokrifoa: “Ez esan ilargiak distira egiten duenik; erakutsi-

dazu argiaren dirdaia kristal apurtuan”. Bestela esateko, galdetzen badiote istorioak “kontatu” ala “erakutsi” behar ote diren, Schanelec-ek bigarrena aukeratu du segur aski: lan honetako pertsonaiak ikusi egiten ditugu eta ikusten dugun horretatik atera behar dira ondorioak, beraien egoera emozionalaz askorik esaten ez duten dialogo eta antzeppen hieratiko samarren laguntza hutsarekin. Gehitu horri denborarekin egiten duen jolasa: 1980ko hamarkadan hasi eta gaur egun arte, lau aldi diferentetan banatuta dago filma, baina horretaz jabetzeko pista handirik ez zaigu ematen –Berlingo harresia erori aurreko telebistako albistei bat, telefono mugikorrek edo liburuz hustu duten apalategi bat, besterik ez–.

Pelikula fragmentatu baten aurrean gaude, non eszena bakoitzak daukan berezko entitate bat eta kontatzeko dagoen istorioak bezainbeste inportatu duen film osoa biltzen duen tonuak. Egia da bi bikoteen arteko uztartzea ez zitzaidala aski ondo justifikatua iru-

ditu filma bukatu osteko momentuan. Gero lagunekin komentatu, pentsatzen hasi, ikusitakoaren bigarren eta hirugarren irakurketa posibleak egin, hasieran protagonistak Grezia gatazkatsu batean egotearen zentzua ulertzen saiatu, amaiera gaur egungo Berlinen kokatuta dagoela jabetu, eta nire buruari galdetu nion denak dimensio politiko bat ote daukan. Zuzendariak ezetz erantzuten dit Google lagun aurkitu dudak elkarriketa batean. Baina bikote-hausturei buruzko pelikula honek funtziona dezake, prezio berean, proiektu europarraren alegoria gisa, kalean kantu alaiak abestuz bidaiatzeko dirua eskuratu nahi zuten gazteetatik, gaur egun kalean bizi den eskaleraino. Galdera ikurra erakutsi eta erantzuna ikuslearen esku uzten duen lana izanda, irakurketa posible bat besterik ez da, noski.

Bestelakoak egiteko aukera duzue, nahi izanez gero, ekainaren 9an euskarazko azpitoluekin Tabakalera bertan prestatu duten emanaldian. ■